

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak ezohiko LEPak onartu ditu Nukleo Administrazioarako eta Osasunerako

*Osasunerako 635 plaza eta Nukleorako 361 plaza gehitu zaizkie ekainean onartutako 1.141 irakaskuntza-plazari, eta, horrela, guztira 2.137 plaza egonkor izango dira*

Asteazkena, 2018.eko uztailak 18

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran bi Foru Dekretu onartu ditu, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako M<sup>a</sup> Jose Beaumont kontseilariak proposatuta; foru-dekretu horien bitartez, lan-eskaintza publikorako (LEP) eskaintza publiko partzialak onartzen dira, Estatuko Aurrekontu Orokorren inguruko ekainaren 27ko 3/2017 Legean aurreikusitako egonkortze-tasari dagozkionak. Modu horretan, 635 plaza deituko dira Osasun-arlorako eta beste 361 plaza Nukleo Administrazio eremuko langileentzat; horrela, ekainaren 6an Gobernuak bilkuran onartutako 1.141 irakaskuntza-plazari gehituta, guztira 2.137 plazako ezohiko deialdia osatzen dute.

Egonkortzeko Lan Eskaintza Publikoa ekainaren 27ko aipatu 3/2017 Legean gaitutako ezohiko prozesuaren ondorioz sortu da. Legearen 19.6 artikuluan xedaturikoaren arabera, lege horretan zehaztutako sektore jakin batzuetan, administrazio publikoek, lanpostuak berriro betetzeko ohiko tasaz gain, tasa gehigarri bat eduki ahal izango dute aldi baterako enplegua egonkortzeko; hau da, gehienez ere, aurrekontua esleituta eduki duten eta 2016ko abenduaren 31 baino lehenagoko gutxienez hiru urteetan aldi baterako eta etenik gabe bete diren lanpostuen % 90a.

Nafarroako eta erakunde autonomoetako Administrazioa osatzen duten plaza guztiak behin aztertuta, baldintza horiek betetzen zituztenak zehaztu ziren, eta guztira 2.137 plaza izatera iritsi ziren. Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean sindikatuekin dagozkion negoziazioak egin eta gero, ekainean Hezkuntzako 1.141 plaza onartu ziren eta gaur gainerako 996 plaza onartu dira.

### **%75 medikoak edo osasun-diplomatuak**

Osasun-arloan enplegua finkatzeko Lan Eskaintza Publikoa 635 plazakoa da: horietatik 621 Nafarroako Osasun Zerbitzuari-Osasunbideari dagozkio eta 14 Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari. Kategoria profesionalen arabera, 242 plaza osasun-diplomatuentzat eta 235 plaza fakultatiboentzat izango dira; hots, LEParen %75a baino gehiago. Horrez gain, 100 plaza daude erizaintzaren laguntzarako teknikarientzat, 33 osasun-teknikarientzat eta 25 zaindariantzat.

Fakultatiboentzat deitutako 235 plazetatik 171 plaza berrogei espezialitatetik gorako espezialistentzat dira eta 64 bestelako osasun-fakultatiboentzat. Hona hemen banaketa: 34 plaza Lehen Arretako medikoentzat, 22 Lehen Arretako pediatriarako, 21 anestesia eta bizkortzerako, 19 kirurgia ortopedikoa eta traumatologiarako, 11 barne-medikuntzarako, 11 psikiatriarako, 10 Larrialdietako Zerbitzu Normaleko medikuentzat, 10 obstetria eta ginekologiarako, 10 psikologo espezialista klinikoentzat, 9 kirurgia orokorrerako eta aparatu digestiborako, 8 erradiodiagnostikorako, 6 medikuntza fisiko eta errehabilitaziorako, 6 urologiarako, 5 Osasun Publikoko ikuskatzaileentzat, 5 kardiologiarako, 5 ospitaleko farmaziarako, 5 larrialdietako mediku ondokoentzat, 4 oftalmologiarako, 3 neumologiarako, 3 onkologia medikorako, 2 aparatu digestiborako, 2 endokrinologia eta nutriziorako, 2 hematologia eta hemoterapiarako, 2 medikuntza intentsiborako, 2 nefrologiarako, 2 neurologiarako, 2 pediatria eta eremu espezifikoezarako, 2 larrialdietako pediatriarako, 1 alergologiarako, 1 analisi klinikoetarako, 1 aurpegi eta ahoko kirurgiarako, 1 kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailerako, 1 bularraldeko kirurgiarako, 1 dermatologia M-Q eta benereologiarako, 1 geriatrico, 1 neurokirurgiarako, 1 onkologia erradioterapikorako, 1 otorrinolaringologiarako, 1 ospitaleko erradiofisikorako eta 1 erreumatologiarako.

LEPean, halaber, guztira 242 plaza daude osasun-arloko diplomatuentzat, eta honela banatzen dira: 206 plaza erizaintzakoak, 20 plaza fisioterapeutarenak, 15 plaza emaginarenak eta plaza 1 elikadurako teknikariarena.

Azkenik, 100 plaza deituko dira erizaintzako zaintza osagarrietako teknikarientzat (EZOT), 33 plaza osasun-teknikarientzat (17 plaza erradiodiagnostikoan teknikari espezialistentzat, 11 laborategiko teknikari espezialistentzat eta 5 plaza dietetikako teknikari espezialistentzat) eta 25 plaza zaindariantzat.

### **361 plaza Nukleo Administrazioan**

Gobernuak bigarren Foru Dekretu bat ere onartu du, eta, horren bitartez, Nukleo Administrazioaren eremuko 361 lanposturen LEPa onartzen da. Nabarmentzekoak dira administrari laguntzaileentzako 136 plaza (127 Nafarroako Osasun Zerbitzura-Osasunbideara atxikita eta 9 Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutura) eta 98 plaza Askotariko Eginkizunetarako Langileentzat (Nafarroako Osasun Zerbitzura-Osasunbideara atxikitakoak).

Ezohiko LEP honetan jasotako gainerako plazak honako hauek dira:

- 27 plaza Zerbitzu Orokorrerakoak (Eskubide Sozialetako Departamentura atxikiak).
- 26 plaza Basozaintzat (Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentura atxikitakoak).
- 17 plaza Zaintzaile Gerontologikoentzat (Eskubide Sozialetako Departamentura atxikiak).
- 14 plaza Zaintzaileentzat (Eskubide Sozialetako Departamentura atxikiak).
- 11 plaza Haur Hezitzaileentzat (Eskubide Sozialetako Departamentura atxikiak).
- 9 plaza Enplegurako Prestakuntzako Erdi Mailako Titulatuentzat (Nafarroako Enplegu Zerbitzura atxikiak).
- 9 plaza Lehen Mailako Ofizialentzat (Nafarroako Osasun Zerbitzura-Osasunbideara atxikitakoak).
- 6 plaza Errepideko Zaindariantzat (Garapen Ekonomikoaren Departamentura atxikiak).
- 3 plaza Lan Arriskuen Prebentzioko TUGMentzat (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutura atxikitakoak).
- 3 plaza Sistema Informatikoen Erdi Mailako Teknikarientzat (Nafarroako Osasun Zerbitzura-Osasunbideara atxikiak).
- 2 plaza Arkitekto Teknikoentzat (Nafarroako Zerga Ogasunera atxikiak).

### **%7 desgaitasuna duten pertsonentzat**

Guztira 69 plaza, 45 osasun-langileentzat eta gainerakoak Nukleo Administrazioentzat, %33ko edo

hortik gorako desgaitasun-maila duten pertsonentzat gordeko dira; hau da, eskainitako plaza guztien ia % 7, zehazki %6,93.

Bestalde, 80 plazaren kasuan, 50 osasun-langileentzat eta 30 Nukleokoentzat, eskainitako plaza guztien %8,03ari dagokionean, euskararen ezagutza eskatuko da hiru mailatan: B1zaindariantzat, B2 osasun-langile eta basozaintzat eta C1 gainerakoentzat.